



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-05-12**

VIIURTEA 1.699.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



E. EZEIZA

**IÑAKI ORMAZABAL** AIZ-ORRATZ ELKARTEKO LEHENDAKARIA

## «Lanerako gogoz badator gazteria gure atzetik»

**TOLOSA** Gaur beteko ditu 75 urte Aiz-Orratz elkarteak; urteurrenaren harira, mozorro eta argazkien erakusketa izango da ikusgai gaurtik 2

## II. Frontenis Txapelketan izena emateko aukera zabalik

**BALIARRAIN** Etzitik eman ahalko da izena; ekainaren lehen bi asteburuetan jokatuko dute; emakumezkoen binakakoa aurten lehen aldiz 5

## Anjel Arrospide Urrezko Aizkolarien final-laurdenetan,

**Saharako errekurtsu naturalen esplotazioaz solasaldia, gaur 3**

**Adunako Udalak AHTren aurkako mozioa onartu du 4**



**TOLOSALDEA** GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



# “ATE IREKIEN EGUNA”

**MAIATZAK 12, ASTEARTEA**

**17:00etatik 20:00etara**

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

**E Elkarrizketa IÑAKI ORMAZABAL** › Veleta-Aiz Orratz elkarteko lehendakaria

## «Atzetik badatoz gazteak lanerako gogoarekin»

**Gizartea** › 75 urte betetzen ditu gaur Aiz Orratz-Veleta elkarteak; urteurreneko ospakizunen baitan, mozorro eta argazki erakusketa jarri dute ikusgai, Kultur Etxean.

### ESTIEZEZIA

Gaur 75 urte ireki zituen atek lehendabiziko aldiz Aiz Orratz elkarteak. Urteurren berezi hau ospatzeko asmoz, urte hasieran ekin zieten ekitaldiei, eta datozen hilabeteetara ere luzatuko dituzte. Egun 100 bazkide ditu elkarteak eta Iñaki Ormazabal da lehendakaria. Bera 1973an egin zen kide eta ez da postu honetan egoten den lehen aldia.

### Zergatik egin zinen Aiz Orratzeko kide, eta ez beste batekoa?

Lagunengatik batik bat. Soldadus-kara beranduen ni joan nintzen, eta handik itzultzean, lagun gehienak elkarte honetan bazkide egin da zeuden. Horregatik, nik ere egitea erabaki nuen. Koadrilan sar-ztea hobe dela auste dut nik, gehiago bizitzeko aukera ematen dizu, eta inplikatzeko.

### Bazkideek elkarte bera bizi al dute, edo taberna bat balitz bezala erabiltzen du?

Oro har jendeak bizi du, batzuk besteek baino gehiago, baina bai, ez dira kafea hartzera bakarrik etortzen.

### Azken 25 urteetan Inauterietan erabiltako mozorroak-eta ateratako argazkiak bildu dituzte.

Elkartean 50. urteurrenean, jostuntxoan bataioiaz mozorroto ginen, eta aurten, 25 urte beranduago, errepikatzea erabaki genuen. Orain, Kultur Etxean ikusgai izango den erakusketarako, azken 25 urteetan erabili ditugun mozorroak elkartu ditugu. Ia denak gordeta genituen, eta ikusgai jartzea erabaki dugu. Honez gain, argazki zaharrak bildu ditugu eta hauek ere erakusketan jarri.



ESTIEZEZIA

### ›› 75. URTEURRENEKO EKITALDIAK

#### Maiatzak 12, gaur

##### ■ Jantzi eta argazkien erakusketa.

Gaur 19:30ean zabalduko da erakusketa hau. Kultur Etxean egongo da jarrita datozen egunetan. Azken 25 urteetan, Inauterietan erabiltako jantziak izango dira ikusgai, baita, ateratako argazkiak ere.

#### Maiatzak 17, igandea

##### ■ Elkartearen festa eguna.

Goizetik hasiko dira ekitaldiekin. 10:00etan, lehendabizi, Meza ospatuko dute Santa Klara elizan. Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketak jokatuko dituzte, elkarte bertan. Tolosako Txistulariak ariko dira ekitaldia alaitzen. Ja-

#### Inauterietan lotura berezia izan duzue beti.

Bai, mozorrotoata ateratzeaz gain, hainbat ekitaldi ere antolatu izan ditugu, haur danborrada eta haurren jaialdia besteak beste. Lehen gauza gehiago egiten genituen, baina oraindik ere antolatzen ditugu batzuk.

#### Zergatik joan dira gutxitzen ekimenak?

Lehen estropadak ere antolatzen

rraian, poteoa egingo dute txarngaren laguntzarekin, eta bazkaria, Fronton jatetxean, 14:30ean.

#### Maiatzak 31, igandea

##### ■ Estropadak.

Tolosa eta Orio elkarren aurka lehiatuko dira, maila guztietan. Honez gain, desafioa jokatuko dute Emendek eta Veleta elkarteko veteranoek. Ondoren herri bazkaria izango da Zerkasian, txarangek alaituta. Bertan izango dira parte hartzen duten arraunlariak eta izena-ematen duten guztiak. Eskertza ekitaldia ere izango da egun horretan. Altxerri eta Ramon Amonarriz izango dira omenduak, arraunaren alde egingako lanerengatik.

genituen, eta parte hartzen genuen hainbat txapelketetan, baina horrek diru asko suposatzen zuen, eta lana ere bai. Elkarte batek ezin dio aurre egin horri.

#### Elkarteak berak urte asko ditu, baina gazteak ere ba al datoz atzetik?

Bai, atzetik badatoz gazteak. Eske-rrak gainera horri. Koadrila bat sartu da eta lanerako gogoia duena gainera.

## Maila mantentzea lortu du Bide Bide Ibizak

**Saskibaloia** › Urdanetaren aurkakoan galdu egin bazuen ere, Lehen Nazionalean lehiatuko da datorren denboraldian ere.

### ERREDAKZIOA

Urdanetaren aurka galdu arren (78-65), Bidegintzaren garaipenak matematikoki maila ziurratzea ekarri dio ondorio bezala Bide Bide Ibizaru. Helburua lortuta iritsi da Bide Bide Ibiza denboraldiko azken jardunaldira. Denboraldi amaiera oso luzea egin zaio taldeari, batik bat egindako urte hasiera bikainak maila mantentzea ia ziurtatu baitzion. Bigarren fase hau oso kaxkarra egin du taldeak eta aurreko emaitzek balio izan diote helburua lortzeko jardunaldi bakar-raren faltan.

Pasa den larunbatean Urdaneta taldeari egin zion bisita Tolosako taldeak. Bizkaitarrek multzoko li-

dertzan bukatuko dute denboraldia. Etxekoak talde osoarekin aurkeztu ziren, ez horrela bisitariak, Kike, Martia eta Unai-ren bajei juniorrenak gehitu behar baitzaizkie. Izan ere, euren taldeak partida garrantzitsua jokatu behar baitzuten Ordizian.

Bizkaitarren etxeko azkeneko partida zenez, irabaztea beste helbururik ez zuten eta nahiz eta norgehiagoka hasieran aldeak nahiko estuak izan, bigarren laurdenetik aurrera 10-15 punturen tartean ibili ziren partida erabakita utziz.

Orain azken partida geratzen da, datorren larunbatean etxean jokatuko dutena Mondragon Unibertsitatea taldearen aurka. Maila mantentzea ziurtatuta dago, baina garaipen batekin amaitu beharra daukate denboraldia. Partida, taldeko zenbait jokalarien azkeneko izango da, beraz, harmailak beteta egotea espero da, jokalariek merezi duten omenaldia jaso dezaten.

## Kutxa Xake topaketak ari dira jokatzeko gurean

**Xakea** › Lehen aldiz eskualdean, alebinenak antolatu dira; Tolosa, Villabona eta Ibarako taldeak aurretik dira.



Alebin mailako jokalariek. HITZA

### ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Kutxa Xake Topaketak hasi ziren Gipuzkoako hainbat eskualdetan. Kutxa Xake Topaketak alebin, infantil eta kadete mailako jokalariez osatutako taldeentzat antolatzen dira. Eskolek, kirol elkarteek nahiz lagun taldeek har dezakete parte bertan.

Aurten lehen aldiz Tolosaldean alebin mailako taldeentzako zonakako topaketa ari da jokatzen. Tolosako Xake Elkarteak antolatuta, Anoetako kiroldegian, Irura, Tolosa, Ibarra, Villabona eta Andoaingo taldeak ari dira parte hartzen. Zonakako honetatik aterako dira

ekainaren 14an Beasaingo finalean eskualdeko ordezkatuko duten taldeak.

Lehen saioaren amaieran Tolosa-Ibarako bi taldeak eta Billabona-Andoaingoa dira lehen postuetan. Ez dago tarte handiegirik beraien artean eta edozer gauza gerta daiteke oraindik. Anoeta eta Irurako taldeak zertxobait atzerago geratu dira baina badute zerbait lortzeko aukera ere. Maiatzaren 24an izango da azken saioa eta hor erabakiko da sailkapena.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## Yasmineren erailketa salatu dute

**TOLOSA** ■ Yasmine Zamira Rodriguez erail zuen senar ohiak iragan asteburuan labankadaz. Gertaera tamalgaria salatzeo Bilgune Feministak elkarretaratzea egin zuen atzo San Frantzisko elizaren aurrean. Dagoeneko bosgarren aldiz elkartu beharra izan dutela aurten gogoratu zuten, eta «jendartean errotuta dauden balio patriarkalek eragiten dutela» salatu zuten. Guztion esku dagoela bestelako gizarte eraikitzea esan zuten. **17**



## «Etekina atera ezin dion unean Sahararekiko duen interesa galduko du Marokok»

'CIRCOA' ■ WSRWko kidea

**Ibarra** ■ Hitzaldia emango du gaur, 19:30etik aurrera, Kultur Etxean; saharar errekurtso naturalen esplotazioaz ariko da.

**INIGO TERRADILLOS**

Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatutako Maiatza Borrokan ekimenaren baitan, *Mendebaldeko Sahararen errekurtso naturalen esplotazioa* hitzaldia izango da gaur, Ibarra Kultur Etxean, 19:30etik aurrera. WSRW (Western Sahara Resource Watch) Saharar Herriarekiko Nazioarteko Elkartasun Sareko kidea den *Circoa*-k emango du hitzaldia. Madrildar honek nahiago du bere ezizena soilik zabaldu bere lana dela-eta arriskuan egon bailiteke. Sare honetan aritzen direnek azterketak eta kanpainak egiten dituzte Saharako lurralde okupatuaren interes marokarrekin bat egiten duten enpresek.

**Nola osatuko duzu gaurko solasaldia?**

WSRW sareak nola egiten duen lan azalduko dut. Horretarako lehendabizi nik eginiko ikus-entzuzko bat jarriko dut, eta ondoren hasiko da nire hitzaldia. Enpresa asko daude legez kanposahar lurralde okupatueta, eta hori da gure egitekoa, besteak beste, horiek handik ateratzea. Lan hori nola egiten dugun azalduko dut. **Enpresa asko daude, beraz, legez kanpo lurralde okupatueta.**

Kontua da, legez kanpo daudela, ezin delako deskolonizazio bidean dagoen lurralde batean esplotazioa egin, prozesua moteltzea eragiten baitute horrelakoek. Hala, saharar herriaren eta ondorioz bere errekurtso naturalen subdota bere lana dela-eta arriskuan egon baitaitezke. Sare honetan aritzen direnek azterketak eta kanpainak egiten dituzte Saharako lurralde okupatuaren interes marokarrekin bat egiten duten enpresek.

**Nola jokatzen duzue horrelako egoeren aurrean?**

Gure helburua legez kanpo lurralde okupatueta dauden enpresa horiek ateratzea da. Izan ere, handik ateratzen baditugu, azkenean Marokok ez du interesik izango lurralde okupatuengan. Enpresa hauengatik, eta ondorioz lurralde okupatuengatik etekina ateratzea ari zuten dionean Sahara interesatzeari utziko dio Marokok.

**Nola lortzen duzue enpresa bat lurralde batetik botatzea?**

Lehendabiziko lana ikerketarena izaten da. Jarraipen bat egiten dugu, eta frogak lortzen ditugu enpresa bat edo beste saharar lurralde okupatueta egiten ari denaz. Horixe da, hain zuzen ere, une horietan nire lana: argazkiak atera, informea egin... Esaterako, Espainian saltzen diren produktuetan marokoar jatorrikoak direla ikusten badugu, eta Sahararen eginak badira, hori ere frogatzen da, legez kanpokoa baita hori, ez delako egia, eta lurralde hori deskolonizazio bidean dagoelako.

Behin frogak lortuta, gutuna helarazten dugu enpresari bere legez kanpoko jardunak azalduz. Horrekin ez bada nahikoa, kanpaina publiko egiten dugu bere kontra, eta azken bidea, epaitegiaren izan daiteke. Calvo enpresa iaz ateratako baten adibidea da, eta orain Rianxeirarekin ari gara lanean. Fosfatoa, arrantza, uranioa, hondarra, petrolioa... bezalako errekurtsoen bila joaten dira hara enpresak.

**Ikerketaren arloa jorratzen duzue. Nolatan hasi zinen lan honetan?**

Duela 4 urte lurralde okupatueta izan nintzen erreportai bat egiten torturak eta bortsak jasan dituzten emakumeen inguruan. Han nintzela enpresa bati hainbat argazki ateratzeko eskatu zitadaten, eta horrela hasi nintzen pixkanaka. Klandestinitatean aritzen gara, turistak bagina bezala. Izan ere, ezin dugu erakunde bezala lan egin, debekatu egiten du Marokoko gobernuak.

## Polisarioaren sorreraren harira, bazkaria

**TOLOSA** ■ Fronte Polisarioaren sorreraren 36. urteurrenaren egunean, hau da, igandean, bazkaria antolatu zuten Ereite elkarteak, Maiatza Borrokan egitarauaren baitan. 30 lagun inguru —eskualdeko sahararrak tartean— bildu ziren bertan, «oso giro onean». Sahararrak «oso pozik» daudela antolatzen diren ekimenekin azaldu zuten. Bestalde larunbatean Sahararen aldeko lasterketa izan zen Aretxabaletan, eta eskualdeko lau parte-hartzaile izan ziren. «Giro polita izan zen», esan dute. **HITZA**

## Bigarren postuan kokatu da Tolosa azken garaipenaren ondoren

**Futbola** ■ Euskaldunaren aurka 2-4 irabazi zuten tolosarrek; hurrengo partida Aretxabaletaren aurka dute.

**ERREDAKZIOA**

Bigarren postuan dira lurraldeko preferente mailako Tolosako azken garaipenaren ostean. Hain zuzen ere, 2 eta 4 irabazi zuten Euskaldunaren aurkako partidari.

Euskalduna taldearen akatsak baliatu zituzten tolosarrek garaipena eskuratzeko. Hala, 0-3 aurreratu ziren markagailuan, Doyarza balek 35. minutuan, Blancok 50. minutuan eta Txouzak 55. minutuan sartutako golei esker. Aurkariak saiatu ziren, eta bi gol egiten zuzten, baina, Blancok bigarrena egin ostean, 2-4 amaitu zen partida tolosarren alde.

Hiru puntuei esker, bigarren postuan kokatu dira, 58 puntuekin. Dena den, 8 puntura dute Aretxabaletan liderra, 64 puntuekin. Gainera, atzetik datozen taldeak ere gertu dituzte.

Datorren asteko partidari dago-kionez, liderra izango du aurrez aurre Tolosak. Etxean, Berazubiko zelaian jokatuko dute Aretxabaletaren aurka.

## Laburrak

### Salamancara bidaiatzen du Harizpek

**TOLOSA** ■ Harizpe jubilatu elkarteak Salamancara bidaiatzen du. Irailaren 13tik 19ra izango da bidaiak. Sei egunetan zehar Salamancan hainbat txoko ezagutzeko aukera izango dute elkarteak bazkideek. Bidai honetara animatzen diren bazkideek 257 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkide direnek 262. Irailaren 7ra arte izango da izena emateko aukera.

### San isidro festan izena emateko aukera

**TOLOSA** ■ San Isidro festa izango da hilaren 15ean. 13:00etan meza San Blas ermitan eta 14:00etan bazkaria Usabal sagardotegian. Izen-ematea, Izaskungo Andra Mari kooperatibaren egina da.

### 1949an jaiotako festa izango da hilaren 16an

**TOLOSA** ■ 1949an jaiotako gizon eta emakumeen festa izango da hilaren 16an Frontonean. Izen-ematea, jaietxean (943 652941), J. M. Irastorza (609832969) edo Mila Azpeitiani (943 670447) deituz.



# AHTren aurkako eta presoen eskubideen aldeko mozioak onartu ditu Udalak

**Aduna** » AHT proiektua gelditzea eta euskal presoen sakabanaketa amaitzea eskatu dute, besteak beste.

## ERREDAKZIOA

Adunako Udalak bi mozio onartu berri ditu, bat AHTren aurkako eta bestea euskal presoen eskubideen aldekoa. Zehazki, AHTren inguruko mozioan, Udalak bost puntu eskatzen dizkio Eudel erakundeari. Lehenengo puntuan adierazten denez, «gizartea onartzen ez duen obra hau berehala gelditzea eska dezala».

Beste puntuan «herreritarrei egiazko informazioa zabaldu diezaiela» eskatzen du eta hurrengoan «AHTren inguruko eztabaida publikoa zabal dezala». Laugarren

puntuan Eudeli eskatzen zaio «defenda dezala, bai Eusko Jaurlaritzaren, Espainiako Sustapen Ministerioaren zein Frantziako Gobernuaren aurrean, AHTk eragindako herriek duten erabakitzeko eskubidea». Azkenik, Europako Batasuneko eta Europako Kontseiluko erakundeak informazioa ditzala «herriarren oposizioaz eta eragindako herri galdeketez».

## «Politika penitentziarioa amaitzea»

*Bitarteko zigorrik ez! Heriotza zigorrik ez! Euskal Presoak Euskal Herrira!* izeneko mozioan Frantziak eta Espainiak euskal presoeri «aplikatzen dieten politika penitentziarioa amaitu dadin» eskatzen du Adunako Udalak eta sakabanaketari «behin betiko amaiera ematea» eskatzen du. «Sakabanaketa sustatu dutenek indargabetu

dezaleta» izan da beste eskaria.

Horretaz gain, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal presoak «berehala eta baldintzarik gabe kaleratzea» eskatzen du mozioak.

Beste puntu batean mozioak «biziarteko espetxe zigorra indargabetu dadin» eskatzen du. Horrela, zigorra beteta duten presoak, baldintzapean dauden presoak «berehala kaleratzeko» eskaria egiten dute eta kaleratuko diren presoeri «Euskal Herrian libre eta baldintzarik gabe bizitzeko eskubidea» errespetatuz.

Azkenik, «isolamendu eta barkartasunaren kontra euskal preso politikoei Euskal Herrian biltzeko eskubidea» dutela dio mozioak. Hala, «dagozkien eskubideen jabe, Euskal Herritaruak izan daitezela», eskatzen du Udalak mozioaren bidez.



## Ondokoak urteurrena ospatzen

**VILLABONA** » Onddo Gazte Asanbladak seigarren urteurrena ospatu zuen larunbatean hainbat ekitaldirekin. 50 lagun inguru izan ziren ekitaldietan. Bazkaria egin zuten Berdura plazan eta ondoren triki-bertsotoa egin zuten, Oihana eta Beñat Iguaran bertsoarietara. Ospakizunak kiroldegian amaitu zituzten, afari-merienda, karaokea eta DJ Zigorrekina. HITZA



# Antonio Climet Trofeoa eskuratu du Iker Hernandez pultsulariak

## ERREDAKZIOA

Villabona-Zizurkilgo Danena-Olaederra Halterofilia taldeak Valentzian egin zen Antonio Climet Trofeoa parte hartu zuen emaitzak onak lortuz. Banakako sailkapen orokorrean Iker Martinez sailkatu zen lehenengo postuan. Taldekako sailkapen orokorrean Danenak bigarren postua lortu zuen. Iker Hernandez, Alain Molea, Iñaki Zubelzu, Adrian Sasiain, Artiz Eriz eta Jose F. Berbia izan ziren parte hartu zuten pultsulariak.

Iker Hernandez pultsularia Espainako Selekzioarekin, 17 urteko mailan, konzentratuta dago Madrilen hilaren 17ra arte eta ondoren Tailandiara bidaiatuko du maila horretako munduko txapelketan parte hartzeko.



Francisco Gonzalez pultsularia. HITZA

Bestalde, Ansoainen (Nafarroa) jokaturako XXI. Trofeo La Txantrean Danena-Olaederrak irabazi zuen. Pultsulari hauek hartu zuten parte: Javier Aranburu, Francisco

Gonzalez, Jose Aranburu eta Angel Martin. Banakako sailkapen orokorrean Francisco Gonzalez sailkatu zen trofeoeko lehenengo postuan.

## Ikastaro arrakastatsua

**IRURA** » Kultur Astean baita sendabellarren ikastaroa arrakasta handia izaten ari da. Bi saio izango dira eta atzokoan jende ugari izan zen plazako ikastolaren areto nagusian. Bitartean, hainbat haur izan ziren piratatz jantzita ludotekan jolasean. I. GARCIA

## Laburrak

### 'Zinea Euskaraz' ekimena bihar Maiatza Saltsanen

**ZIZURKIL** » Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan, *Zinea Euskaraz* ekimenaren baitan, bihar, 11:00etan, *Franklin eta lakuko altxorra* filma emango dute Villabonako Gurea aretoan. Hurrengo emanaldiak, beste bi filmekin, hilaren 20ean eta 22an izango dira.

### Herriko artistei bilera batera deitu die Udalak

**ANOETA** » Herriko festetan herriko artisten lanak eta eskulanetako ikastaroko partaideen ikusgai jarri nahi ditu Udalak. Erakusketan parte hartzea eskertzen du Udalak eta horretarako bilerara agertzeko deia egin du. Bilera gaur izango da, 17:15ean, udaletxean.



HITZAK harpidedunentzat 4 sarrera pare ditu

## Pirritx, Porrotx eta MariMotots

Maiatzak 16 • Larunbata  
16:30ean • Donostiako Gasca kiroldegian

sarrerak eskuratzeko deitu GAUR 17:00ak arte: 943-65 56 95 harpidedun kodea eskura duzula jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak, BIHAR, Maiatzaren 13ko egunkarian.



sarrerak



txokoa hitza



# II. Frontenis Txapelketa ekaineko lehen bi asteburuetan jokatuko dute

**Baliarrain** » Aurtengo berritasunen artean, emakumeen arteko binakakoa da; izena etzitik aurrera eman daiteke.

## NEREA URBIZU

Esan eta egin: iazko Baliarraingo I. Frontenis Txapelketa antolatu zuten eta bukatuta, bigarren bat ere antolatuko zutela zin egin zuten, Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa. Aurtengoan, gizonen arteko artekoa banaka egitea erabaki dute eta emakumezkoen artekoa binakakoa. Azken hau berria da, iaz banaka baitzen guztia.

Izena emateko aukera etzi irekiko da. Helburu nagusia ondo pasatzea duen txapelketa da: «Oso gustuko dugu frontenisa eta txapelketatan jokatzeko aukera handirik ez dago, negu garaian Berrobikoa kenduta», gogoratzen dute antolatuzaileek. Bi lagun artean jaitzen lehiaketa berri hau egitearen ideia, eta dagoeneko, iazko harrera ona ikusita, aurtengoa ere animatu dira antolatzen. Txapelketa honetan parte hartzeko hildaren 28ra arte eman daiteke izena. Aralar Kirolak (Tolosa) edo Urrutia Kirolak (Beasain) eginez, beti ere etzi ostegunetik aurrera eta bost euroren truke.

**Lehen partidak ekainaren 6an**  
Partidak, zehazki ekainaren 6ko asteburuaren eta 13ko asteburuaren baitan jokatuko dira. Orduak noski, izena ematen duten kopuruaren arabera moldatuko dute. Esaterako, iaz 60 lagun aritu ziren txapelketan eta horren arabera izan zen txapelketa.

Txapelketaren babesleak hauek dira: Baliarraingo Udala, Zartagi jatetxe-aterpetxea, Aralar Kirolak, Dosges komunikazio grafikoa eta Elduaien hizkuntza eskola, hain zuzen ere.

Iazko txapelketa Nikolas Artola berrobitarra izan zen, Mikel Goitiaren kontra jokatu ondoren. «Txapelketa arrakastatsua izan zen eta balantze oso positiboa egin genuen orduan arrazoi askorengatik: parte-hartzaileen kopuruarengatik, frontoia egoera oso onean zegoelako, espreski garbitu zutelako honetarako»...



Saroi Oyarbide tolosarra eta Nikolas Artola berrobitarraren arteko partida, iaz. ASIER IMAZ

**BALIARRAIN 09**  
**FRONTENIS**  
**TXAPELKETA**  
**EKAINAK 6 | 14**  
asteburuetan, soilik  
MUTILEN BANAN-BANAKOIA  
NESKEN BINAKAKOIA  
INSKRIPZIOAK  
MAIATZAK 14 | 28  
SARRERAK: 5 EURO  
ZUZENA: ASIER IMAZ  
FINAL OR. JOZUEZTU IZUTAN  
LAGUN BANAKAKOIA  
1. ANDO DA

Txapelketa iragartzen duen kartelean behar diren zehaztasunak datoz. HITZA

«Ondo pasatzeko lehiaketa»  
Helburua «ondo pasatzea» da; «Urtean zehar hemen inguruetan behintzat ez dago aukera askorik

«Ondo pasatzeko lehiaketa»  
Helburua «ondo pasatzea» da; «Urtean zehar hemen inguruetan behintzat ez dago aukera askorik

## » DATU BATZUK

- **Txapelketa.** Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa.
- **Ezaugarriak.** Gizonen arteko banakakoa eta emakumeen arteko binakakoa.
- **Prezioa.** Bost euro pertsona bakoitzeko.
- **Parte hartzeko.** Tolosako Aralar Kirolak eta Beasaingo Urrutia kirolak, hildaren 28ra arte etzitik hasita.
- **Datak.** Ekainaren 6an eta 7an eta ekainaren 13an eta 14an.
- **Sistema.** Kanporaketa.

jokatzeko». Txapelketa hau udako izango litzateke. Inguruko onenak hurbildu ziren iaz, eta baita probatzen joan zirenak ere. Azken batean, ondo pasatzera joan ziren denak.

Abenduan edo, Berrobiko txapelketa bukatuta, esaten genion elkar, pena zela halako gehiago ez izatea, eta zergatik ez ote ginen animatzen uda partean beste bat antolatzen. Sariak ez dira faltako aurtengoa. Hauak, finala jokatu ondoren egingo dute. Noski, partida guztiak Baliarraingo pilotalekuan jokatu dituzte.

## Laburrak

### Ezohiko bilkura bihar egingo dute, 08:30ean

**AMEZKETA** • Bihar goizean, 08:30ean, Amezetako udaletxe-ko pleno aretoan ezohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: ekainaren 7ko hauteskundeetarako mahaiko ki-deak aukeratzeko zozketa. Amezlan 2007: permutaren erresoluzio baldintzaren aldaketa, banketxe-ko abala onartuz.

### Ekainaren 7ko festarako bazkariko txartelak salgai

**ALEGIA** • Alegiako kultur batzordea *Garai bateko Alegia* ekintza prestatzen ari da ekainaren 7rako. Egun horretan, egongo den bazkariko txartelak dagoeneko salgai daude, eta hilaite osoan zehar. Hauek erosteko lekuak honakoak dira: Kurpil, Iskiña, Etxeberria, Jubila-tuak, Kafe Letamendia eta Eiz-mendi taberna eta Kultur Etxea, 10 euro ordainduta. Paella, postrea eta edaria (sagardoa eta ardoa) izango dira jatekoak. Bazkaria plaza egingo dute.

### Haur eskolan ostiralera arte eman daiteke izena

**ALTZO** • Altzoko haur eskolan izena emateko epea aste honetan bukatuko da. Ostiralera arte eman daiteke haurtxoaren izena Lizarbe etxean dagoen haur eskolan. Bertan dagoen inprimakia bete behar da. Telefono zenbakia honakoa da: 943 65 47 37.

### Udaberri Txapelketako asteburuko emaitzak

**PILOTA** • Asteburuan zehar Udaberri Txapelketako norgehiagokak jokatu dira lau t'erdikoan eskualdean. Hauek dira emaitzak: Bidan-ian, Barandiaran 22, Murua 19; Elustondo 22, Etxegoien 10; Gur-rutxaga 22, Leonet 18; Balerdi 4, Artola 22; Beotibarren Otaegi 2, Arzelus 22; De la Sotilla 15, Landa 22; Barandiaran 22, Galarraga 18; Elola 8, Urretabizkaia 22; Ibarra-n Pikabea 7, Barberia 22; Erauskin 18, Galarraga 22; Lopez 19, Lizaso 22; Olazabal 7, Etxeberria 22. Bukatzeko, Ikaztegieta-n Erauskin 18, Galarragak 22.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



sarrerak

HITZAK 2 harpidedunentzat **bina sarrera** ditu

Beasaingo **GARAGARDO AZOKA**n afaltzeko  
(Maiatzak 14, 15, 16 eta 17)

sarrerak eskuratzeko: **943-16 00 56 / gh@goierrikohitza.info**  
harpidedun kodea eskura duzula

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak Maiatzak 14ko egunkarian.

TXOKOA hitza

# Iaz baino jende gehiago VI. Garagardo Festan

**Ibarra** » Antolatzaileek «herriko taldeentzat diru laguntzak lortzeko» lan egin duten guztiei euren esker ona agertu diete.

REBEKA CALVO

Pozik daude Ibarako Garagardo Festaren antolatzaileak, «autengo Garagardo Festako balorazioa oso postibiboa» da, esan dute. Pasa den asteburuan izan zen, maiatzak 7an hasi eta 10era arte, eta egun hauek guztietan zehar iaz baino jende gehiago pasatu da handik «eguraldi txarrari eta krisiari» aurre eginez. Pozik egon arren «aurretik egin beharreko antolakuntzan nahiko bakarrik sentitu» zirela ere esan dute, baina aurretik ere «zenbait herritarren kristoren laguntza» jaso zutela azpimarratu nahi izan dute.

## Boluntarioak omenduz

Ostegun arratsaldean hasi zen festa eta aurtengoan, gainera, herritar boluntarioak omendu zituzten, «interes pertsonalik gabe azken urteotan egindako lana» eskertu ahal izateko. Iaz 200 per-



Boluntarioek inauguratu zuten festa; Kantu Afaria ere izan zen ostiralean. R.C.

tsonek egin zuten lan eta aurtengoan ere horrela izan da, jende askok egin behar izan du lan azoka behar bezala egiteko. «XXI. mendeko auzolana dela esan dezakegu, hainbeste herritarren inongo interes pertsonalik gabe herriko taldeentzat diru laguntzak lortzeko lan egitea», esan dute. «Ibarra herri txikia da, baina aberatsa da herri mugimenduan ete horregatik zinta mozketa xumean omenalditxoia eta gorazarre egin izan diegu 200 boluntarioei», gaineratu dute.

## Bi karpa, 800 litro garagardo, musika...

Egun hauek bi karpa erraldoi egon dira jendearentzako egokitu-ta Ibarako plazan, batean 700 pertsoneri jaten emateko egokitu zuten eta bestea edaria zerbitzatzeko karpa izan zen.

Euskal Herrian ekoiztiko 6 garagardo eta inportaziozko 14 garagardo mota banatu dituzte egun hauek zehar. Guztira 250 garagardo kupel izan dira, 800 litro inguru. Aurtengoan gainera, garagardo menua pixka bat moldatu zuten eta datorren urtera begira ere «aldaketaxo» batzuk egingo dituztela aurreratu dute. Hori bai

Euskal Herriko garagardoak dasatzeko aukera mantenduko dute- Gipuzkoako Pagoa eta Xiberuako Akerbeltz- eta 5 kalimotxo mota ezberdin eskaintzeko berezitasuna ere mantenduko dute.

## «Adinik gabeko festa»

Esan bezala iaz baino bisitari gehiago izan ditu Garagardo Festak eta antolatzaileen hitzetan «honek adierazten digu Garagardo Festak inguruko festen alboan bere lekua bilatu duela eta erreferentziatzeko festa dela eta adinik gabeko festa ere badela», argitu dute.

Parte-hartzea ikusita antolatzaileek «datorren urtekoa antolatzeko gogo» dutela esan dute, nahiz eta «antolatzaile taldeetxo handitzeko beharra» ere nabaritu duten, «gehienbat pisua banatze-ko», esan dute.

Edatekoarekin eta jatekoarekin batera, dena den, egon dira kultur ekitaldiak ere. Ostiralean, esate baterako, Txolarre Irratiaren kantu afaria izan zen eta larunbatean eta igandeetan herriko Djak izan ziren musika jartzen. Era berean, Gazte-xean kontzertuak ere izan ziren, Klavo Oxidao eta Gabezin taldeek, hain zuzen.

## 2-5 galdu zuen Laskorain taldeak

**Tolosa** » Laudijoko Izkepoten aurka aritu zen areto-futboleko taldea eta galdu ostean zortzigarren da sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean ez ziren oso gogotsu aritu Laskorainekoak Izkepot talde arabarraren kontrako partidari. Horitxoak fede ahularen kantzaratu ziren eta talde moduan borrokatzeko grinak ere ez zuten behar bezainbeste irau.

Laudiotarrena izan zen partida hasieraren ostean, Ikastolakoek ondo erantzun zuten, minutu luzez neurrak orekatu bat ikusteko parada izan zelarik. Murgiren banakoaren ondoren, arabarrek bigarregoz aurrea hartu zuten eta Usabalgo markagailuak 1-2 adie-

razten zuen atsedendian. Bigarren zatia bikain hasi zen etxekoentzat. Joko erritmoa igo eta partida erabat ireki zuten, gol aukera ugari ere izan zituztelarik.

Berdinketa ordea ez zen iritsi, batez ere Izkepotekoen atezainaren lanari esker, eta zorigaitzeko minutu batean, gainera, lehendabiziz faltaz eta kontraerasoan ondoren, laudiotarrek 1-4ko emaitza lortu zuten. Ondoren gertatutakoa izan zen tamalgarriena, hala ere: azken minutu horietan horitxoek errazegi eman baitzuten amore, errazegi utzi baitzuten talde lanean sinesten eta transmititu edo igorri zituzten sentsazioak mentalitate ahularenak izan baitziren.

Jardunaldi bat gelditzen da txapelketa amaierarako eta Laskorainek Elorrion izango du aukera demboraldia beste modu batera amaitzeko.

## Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumea.** Norbanako batetik Labrador Retriever txakurkume arra saltzen du. Kolore horixka. Deitu 18:00etatik aurrera 637 929 962 telefono zenbakira.

» **Zurea da hitza.** HITZAREN webgunean zeuen iritziak, kezak, eskertzak edo dena delakoa jaso nahi ditugu eta horretarako Zurea da hitza atala erabili dezakezue. Bertan, zeuen herrietako berriak ere zabaldu ahal dituzue, eta horrela bada kontaktatu ahal izateko telefono edota helbideren bat ere jartzea eskertuko genuke: [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Udaletxe kanpoaldean kamera bat jartzea adostu du Udalak

**Ibarra** » «Udaletxea erasotzeko asmoa duten pertsonak aldendu eta eraso berriak ekiditeko» hartu du erabakia.

ERREDAKZIOA

Ibarako Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, udaletxe kanpoaldean segurtasun-kamera bat jartzea adostu du eta horretarako onartu du jada diru-partida bat bideratzea. «Kamera honek udaletxeko sarrerak zainduko ditu erakinen kontra delituzko ekintzak gerta ez daitezen», azaldu du Ibarako Udalak.

Erabakia, esan bezala, osoko bilkuran adostu zuten eta laster hasiko dira kamera jartzeko lanak.

## Hiru eraso gogoan

Txelo Romeok, Ibarako alkateak, eraberean, erabaki honen arazoia iaz udaletxe azpiegiturek pairatu zituzten hiru erasoak direla esan du. «Sabotaje hauen ondorioz, Udalak aparteko gastuei aurre egin behar izan zien sortu ziren kalteak konpontzeko», gaineratu du alkateak.

«Indarkeriazko azken ekintzen eraginez» Udalak zainketa-lanekin kontra delituzko ekintzak gerta ez daitezen, azaldu du Ibarako Udalak.

txeko atekaldu behar izan ziren eta Udaleko ohiko jarduerak orduetarik kanpo geratzen ziren hainbat ordutan zehar zaintzaile bat egon zen inor bertara sartu ez zedin».

## Epe luzerako neurriak

Hala ere, Udalaren ustez aldi baterako neurri honek ez du bermatzen eraikinen segurtasun osoa eta horregatik erabaki du Gobernu taldeak epe luzerako baliagarriak izango diren segurtasun neurriak hartzea. Kasu honetan segurtasun-kamera ipintzea adostu du Udalak «udaletxea erasotzeko asmoa duten pertsonak aldendu eta eraso berriak ekiditeko».

## Laburrak

**Txosna Batzordea bihar, 19:30ean Kultur Etxean**

**IBARRA** • Ibarako Gazte Asanbladak jakinarazi duenez, herriko jaiak geroz eta gertuago daudenez Txosna Batzordearen bilera antolatu dute biharko, asteazkena, hilak 13, 19:30etik aurrera herriko Benito Izagirre kultur etxean.

**Festa Batzordearen bilkura etzi, 20:00etan**

**IBARRA** • Ibarako Udal Kultura eta Gazteria Sailak abuztuan izango diren San Bartolome jaien antolatari jarraitu asmoz, Festa Batzordearen bilkura antolatu du etzizko, osteguna, 20:00etan Udal Batzar Aretoan. Herriarrak gonbidatu nahi ditu parte hartzera.

**Sukaldaritza Erakusketa eta pilota partidak, gaur**

**BERRIOBI** • Berrobiko XIX. Kultur Astea atzo hasi zen eta gaur ere izango dira ekitaldiak. 17:00etan Urreburuko gaztetxoaren pilota partidak izango dira eta 18:15ean Sukaldaritza Erakusketa izango da Hernalde jatetxe Felix Garrido sukaldariarekin Bide-Ona elkartearekin.



Anjel Arrospide, Arkaitz Olanu eta Ruben Saralegi aizkolaria. Maila ezberdinetan baina hirurak Urrezko Banakako Aizkolarien Txapelketan. ESTI EZEIZA

## Urrezko Aizkolarien Txapelketan Anjel Arrospide final-laurdenetan

**Aizkora** » Arkaitz Olanu Txapelketatik at gelditu da, Ruben Saralegi finalera sailkatzeko Larretxea gainditu beharko du.

### ASIER IMAZ

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren proba jokatu zuten larunbatean Ataunen. Bertan Tolosaldeko eta Leitzaldeko hiru aizkolaririk elkartu ziren: Anjel Arrospide, Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanu.

Elite mailan Arrospide leaburuarrak final-laurdenetarako txartela lortu zuen.

Saralegi eta Olanu leitzarrak 19 urte azpiko en mailan aritu ziren. Ataungo probaren ondoren finale-

ra sailkatzeko aukerak mantentzen dituen bakarra Saralegi da.

### Arrospide vs. Arria V.a

Urrezko aizkolaria nor den jakiteko lehia, herri kirolariak azken kolpeak ematen hasiak dira. Elite mailan final-laurdenak erabakirik gelditu ziren asteburuan, ondorioz, txapela lortu nahian 8 aizkolaririk bakarrik gelditzen dira.

Hauen artean Anjel Arrospide aurkitzen da. Leaburuarrak Ataunen lortu izan zuen 8 onenen artean sartzeko txartela. Horretarako Xabier Orbegozo, Arria V.a, gainditu zuen. Lehenak 15:19ko denbora behar izan zuen bere lanak amaitzeko, erretildarrak aldiz 17:27koa.

Final-laurdenetan Arrospidek Aitzol Atutxa edukiko du aurrean

Zeanurin, hilaren 16an. Garaipena lortzen duenak Mikel Mindegia eta Lopez Azpilikueta arteko lehiako garailea edukiko du finalerdietan arerri.

### Saralegi eta Olanu

Elite mailako bi aizkolaririk hauekin batera, 19 urte azpiko urrezko aizkolaririk bakarrik gelditzen dira. Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanu.

Azken honek Oihan Larretxearen aurka neurtu zituen indarrak eta 12:57ko denbora lortu zuen. Larretxeak ordea 11:45koa.

Ruben Saralegiri ere galtzea tokatu zitzaion larunbatean. Leitzarrak 8:32ko denboran ebaki zituen enborrak. Ander Erasunek berriz 7:58an. Ondorioz, Erasunek

Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketaren finala jokatu du. Bigarren finalista Saralegi eta Larretxearen arteko lehia irabazten duena izango da. Porrotaren ondoren Arkaitz Olanu aukerarik gabe gelditu zen.

### JON REKONDO LEITZARRA TXAPELKETATIK KANPO IGANDEAN

Ataungo proba galdu ondoren Xabier Orbegozo, Arria V.a, Arabara joan zen hurrengo egunean, Kuartangora. Bertan aurreko egunean final-laurdenetan galdutako postua berreskuratu nahi zuen. Horretarako Jon Rekondo garaitu behar zuen. Leitzarrak 19:00 minutuko denbora egin zuen, Arria V.ak 17:36koa.

## Euskal Herriko Sokatira Txapelketan hirugarren postua hasteko

**Areso** » Hurrengo jardunaldia Azkoitian jokatuko dute hilaren 16an, larunbatean, 680 kiloko mailan.

### A. IMAZ

Lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zuten Berriatua (Bizkaia) herenegun. 680 kilotan aritu ziren 6 talde. Hauen artean Areso aurkitzen zen eta nafarrak hirugarren gelditu ziren.

### Goiherri A nagusi

Udaletxearen atzealdeko zelaietan jokatu zen txapelketako estreinako saioa, eta sokan aritzeko leku egokia gertatu zen. Lehen postua Goiherri A taldeak lortu zuen. Bigarren Gaztedi gelditu zen, hirugarren Areso eta ondoren Mutriku. Pisu horretako hurrengo jardunaldia heldu den larunbatean, hilaren 16an, jokatu dute Azkoitian (Gipuzkoa).

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbol:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldea bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Garaipenetan eta tantoetan berdinketa

**Leitza** » Nafarroako Herri Arteko Txapelketaz gain hainbat herritako Txapelketak jokatu ziren pasa den asteburuan.

### A. IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan parekotasuna nagusitu zen Leitza eta Uharteren artean. Herri bakoitzak bi partida irabazi zituen.

Ondorioz egindako eta galdutako tantoak gehitu behar dira. Hauetan ere bi herriak berdin, 56na.

### Azken bi partidetan garaipena

Herri Artekoa seniorrek jarri zuten martxan. Oihan Alduntzinek eta Mikel Iriartek 8-22 galdu zuten lehen partida hau.

Bigarren lehia alebinen mailan jokatu zen. Jon Lezea-Ander Eskudero bikoteak 8-18 galdu zuten.

Uharteko pilotalekuan leitza-

rrentzat ilun jarri ziren gauzak. Infantiletan ordea lehen garaipena iritsi zen, Anartz Olanu-Mikel Hernandorena bikotearen eskutik. Hauek 18-10 irabazi zuten. Azken partidak jubenilek jokatu zuten. Xabi eta Jon Jaunarenak uharterrak seian utzi zituzten. Leitzarren bigarren garaipena lortuz.

Orain multzoko hirugarren herriaren, Arbizuren, aurkako lehietan erabakiko da Txapelketan Leitzarren eta Uharteren etorkizuna.

### Atsedendirik gabe

Herri Artekoan jokatu eta Elgetara joan zen Jon Jaunarena, bertako txapelketara. Hiru egunen baitan bigarren partida jokatu zuen leitzarrak eta hemen ere garaipena lortu zuen 22 eta 6ko emaitzarekin. Zaramagoko Txapelketan Olanu-Tolosak 18-10 irabazi zuten finala Ruiz-Gonzalezaren aurka. Getxon Larrañaña-Iriartek irabazi zuten finala 22-16 Beitia-Bengoetxearen aurka.





GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

» **GUARDIAKI FARMAZIAK**

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676 013.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

**A Agurrak**



**Urte askoan!**

**Lexuri Aizpurua De Paz (Asteasu).** Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**Aizkardikoen irteera Lokiz eta Montejuerrara**

**VILLABONA** Hilaren 16 eta 17 rako Lokiz mendilerroa eta Montejuerrara irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak, Ollogoieneren laguntzaz (iganderako bakarrik ere joan daiteke autoz). Izena elkartean bertan 20:00etatik 22:00etara eman daiteke edo 649 717182 telefonoz zerbait. Osteguna izango da horretarako azken eguna. Larunbatean Lokizeko ibilaldia egingo dute, Menutatik (543 m.) abiatuta. San Cosme mendia igoko dute (1114 m.) Allin bailara atzean utzita. Handik Sartaletara (1055 m., irudietan) igaroko dira, eta hemendik Ollogoienera jaitsiko dira. Bertan gaua igaroko dute eta igandean, Iratxetik abiatuta Montejuerrara igoko dira (1044 m.). Hiru gailur igaroko dituzte bidean eta Monjardin herrira (617 m.) helduko dira. Hemendik beriz Monjardin mendia igoko dute (893 m.) eta berriro Labeagaraino jaitsiko dira, Ollogoienera helteko. Larunbatean 08:00etan, abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. Igandean bertan joan nahi dutenek garraioa euren kontura topatu beharko dutela jakinarazi dute elkartetik. HITZA



**LURRALDEBUSeko istorioak**

**LURRALDEBUS**

**Brian, 21 urte**  
Tingulaterakia da eta Dornutik irteeratik irago Donostian. Berek ere gustuko du Muntzia.

**Jasone**  
Donostia Herria. Narekoa. Donostia Herria.

**Maitane, 19 urte**  
Tingulaterakia da eta Dornutik irteeratik irago Donostian. Berek ere gustuko du Muntzia.

**Albena**  
Donostia Herria. Narekoa. Donostia Herria.

www.lurraldebusekoistorioak.com

**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera

**Ateak zabalik jardunaldia**  
Prestakuntza-Ziklo berriak, zatzoz informatzera!!!

**cebanc**

cebanc-er, Barrio Pasealekua 50 (Unibertsitatearen ondoan), larunbatean maiatzak 9 eta 23 11:00etan eta ostigunetan maiatzak 14 eta 28 19:00etan.

**EFORTZEA EGOKIATU** izeneko jardunaldiak: cebanc.com

Iteluz zure izena, abizena eta telefonoa. TELEFONU MUGIKOARI ADRIBITZEA (PINA) BRABAZI AHAL DZAGINDO DUZU.

**Merkatutza eta Marketing**  
**Administratzaia**  
**Ostalaritza eta Turismoa**  
**Informatika**  
**Dietetika**

1 Informazio-azalpena bertako irakaskerik lagunduta  
2 Zentzorekin kutsatutako gida  
3 Irakaskerik aldiro antolatzen da  
4 Gai Mugarriak Oribitza Etxeko irakaskerik lagunduta  
5 Irakaskerik lagunduta

Barrio Pasealekua, 50 - 60019 Donostia - San Sebastián - Tfno. 943 91 69 00  
**www.cebanc.com**